


# BERRIGARA

49. zenbakia

Jardun elkarteak, Bergara

1992, urtarrilak 24



**MAYC italiarren  
eskuetan**



**Uberan  
San Pauloak**



**Antzerki  
aretoa  
Zabalotegin**



**Igeri  
Elkarteak  
20 urte**

**V E C T R A**

Besteek desioak besterik topatzen ez dituztenean zuk errealitate finkoak aurkitzen dituzu.



**BEREHALAKO  
ENTREGA**



**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Guipuzkoa)


Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2  
Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI  
GARAIrako kontzesionaria

Denda-sare Ofizialak







Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta  
karta bereziak ditugu  
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

**ARGAZKI**

**18 urtean  
zure zerbitzuan**

**Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66**



## **GALDE DEBALDE**

**ELISA GARMENDIA**

**Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun  
zuzena hau zen: Telesforo Aranzadi**

**Elisa Garmendiak idabazi du ARGAZKiko  
SARIA.**

**ZORIONAK irabazleei!!  
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman  
aste honetako galderarai!**

**Urcelay**  
**HARATEGIA**

**GURE BASERRIAN  
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,  
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

**lbargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77**

**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

**Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57**



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 760397

**Laguntzailea:** Bergarako  
Udala

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo  
Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal, Iñaki  
Arietaleaniz eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Miguel Angel Elkoroberezibar,  
Jose Angel Mikeo, Estepan  
Plazaola eta Juan Martin  
Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa  
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Mikel Elkoroberezibar, Josune  
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber  
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa  
Bikuña

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A.  
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo,  
Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi  
Retolaza, Kifu eta Pol-Pol  
Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri  
Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta eritzien erantzunkin-  
zunik.



**Unanue eta Zezeagak**, binakako txapelketaren finalistetako bat erabakitze Retetgi II. eta Maiz II.aren aurka jokatu beharko dituzten hiru partiduen lehendabizikoa Bergaran jokatuko da larunbatean. Pelotalekuan, arratsaldeko lau t'erdietan.

**LARUNBATA 25**

- **Saskibaloia:**  
- Bergara-Don Bosco (gazte mutilak), 16.00etan.
- Bergara-Don Bosco (gazte neskek), 16.00etan.
- Bergara-Ondartza (junior mutilak), 17.30etan.
- Bergara-Aloña Mendi (kadete neskek), 17.30etan.

- **Uberako jaiak:**  
- Haurren antzerki-emanaldia 12etan.
- Mendi Bizikleta Txapelketa 15.30etan.

**IGANDEA 26**

- **Saskibaloia:**  
- Bergara-Donosti (senior emakumeak), 12.15etan.
- **Jaiak Parteittin:**  
- Ordu batetan salda eta txorizoa. Ondoren dantzaldia.

**OSTEGUNA 30**

- **Hitzaldia:**  
- Gaia: Tributazio eta sistema fiskalei buruzko komentarioak. Hizlaria: Alberto Garzia, Jubilatu eta Pentsionisten Elkar-teko Idazkaria. Jubilatu-etan, 17.00etan.

**FARMAZIAK**



- 27 Estella/Ruiz (Arrasaten gauetz)
- 28 Mozos/Morales
- 29 Camacho/Azkoaga
- 30 Puñ/Español
- 31 Estella/Irizar
- 1 Estella
- 2 Estella
- 3 Mozos

**ZINEA**



*La pequeña pícaro*

- **OSTIRALA:** 22.30.
- **IGANDEA:** 15.00, 19.30 eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:** 19.30

*Escándalo en el plató*

- **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.

*Colmillo Blanco*

- **IGANDEA:** 11.30.

**OGIA**



**Konde**

**IGARO**

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

**GISASOLA BURDINDEGIA**

“ Erratzu ”

Pedro Deuna 8,

Tfnoa: 76 27 70

**BERGARA**



**Txukuntasun estetiko, etiko eta morala**

Berrigararen urtarilaren 10ean argi taratu ziren alkatearen adierazpenen aurrean.

Badirudi, egiek alkate jauna min-tzen dutela, baina azkenengo Ohizko Plenoan Herri Batasunarekiko azaldu zuen iharduera ikusirik, gure ideiak azaldu ahal izateko herri honetako hormak zulentasun osoz eskatzen di tugu.

Orain arte PNV eta PSOEren menpeko komunikabideak erabiltzeko eskubidea ukatu egin zaigu; baina hori gutxi balitz, orain plenoetan erantzuteko eskubidea ere kentzen zaigu, nahiz eta aipamen zuzenei erantzuteko izan. Aurretiko legealdian, Herri Batasuna buru zelarik, inori ukatu ez zaio-nean, gutxienez, erantzun bikoitza izateko eskubidea.

Laburbilduz, Herri Batasunak:

1.- Ezin dezake ETB erabili PNV eta PSOEek ez dutelako hala nahi.

2.- Ezin ditu bere ideiak, prentsak manipulatu gabe, askatasun osoz azaldu, hau ere, ez dutelako hala nahi.

3.- Ezin ditu hormak erabili zeren, beraiek diotenez, txukuntasunaren aurka doa (hau da, zatar egiten du).

Baina Herri Batasunari:

1.- Bergarako udaletxean, parte hartu nahi badu ere, gobernu batzordeetatik bota dezakete, PNVk eta PSOEek hala nahi dutelako, EEren la-

guntzaz.

2.- Kontraesan handia suposatzen badu ere, 113 milioi lapurtu diezaiokete besterik gabe, hainbatetan Vascongadasetako Legebiltzarrera ez joateagatik, eta inork ez du ahotsik altxatzen.

3.- Plenoetan erantzuna debekatu diezaiokete eta inor ez da adierazpen askatasunarekin gogoratzen.

Txukuntasun estetikoaz buru belarri aritu beharrean, hobe litzateke EUDDEL txukuntasun etikoaz eta batipat moralaz arduratuko balitz, dagoeneko hain zabalduak dauden ustelkeria gertaeren aurka dagokien auzi ekintzak bideratuz, hots, "tragaperrak", "Osakidetza oposaketak", e.a... bezalako ihardueratan, garbitasunak benetan kezkatu eta arduratzen duela horrela azalduz.

Herri Batasuna, PNV eta PSOE bezain arduratua dago herri honetako hormak garbi mantentzearekin, baina batzutan zikintzeak pena merezi du, benetan herri garbia lortzeko.

**Bergarako HB**

**PESA "pasa"**

Ez dakigu PESA enpresak konpetentziarik ez duelako edo baina gure kasuan behintzat, Bilbora joateko, nahiko arazo izaten ditugu:



Astlehenero autobusa 20 minutu berandu etortzen da eta askotan tokatu zaigu zutik joan behar izatea.

Astlehenetan Bilbora joateko eta ostiraletan Bergarara bueltatzeko ikasle asko dagoenez, eta txartela dextente ordaintzen denez gainera, uste dugu egoera hobean bidaiatzeko aukera eduki beharko genukeela.

Enpresa berberak beste herri batzuetan, Eibar kasu, askoz ere konbinazio hobekak ditu. Autopistaz joaterik ere badute. Ez al da izango Eibarren PESA-z aparte autobus enpresa gehiago eta tren ere badutelako?

Gu bezala jende asko da kexatzen dena eta gure ustetan kontutan hartzeko moduko zerbait da. Ez da horrenbestea eskatzerik.

**M.I. eta M.B.**

**OHARRA:** Daukagun eskariagatik gutunel leku haundiagoa ematea erabaki dugu. Hala ere, gogoratu behar dizuegu denek tokia izateko, ezin izango direla 20-25 lerrokoak balno luzeagoak izan eta bidaltzailearen izen-abizenak eta, eduki ezkero, telefonoa eman beharko dela.

**Tiira ba!**



**Josu Okina**



### □ Euskaltegia

*Bergarako Udal Euskaltegiak* euskalduntze eta alfabetatze taldeetan hutsik dauden plazak betetzeko deialdia egin du. Izena emateko epea urtarrilaren 28ra arte izango da zabalik arratsaldeko ordu bi t'erdietatik sei t'erdietara. Argibide gehiago nahi izanez gero, Barrenkaleko 33. zenbakira edota 764453 telefonora jo dezakezue.

### □ Orfeoia


Larunbatean, hilak 25, *Bergarako Orfeoia* kontzertua eskeiniko du Elgetako Andra-Mari Eliza Nagusian gaueko 8 t'erdietako mezaren ondoren. Besteak beste, Porosi, Iparragirre edota Ennio Morriconeren piezak eskeiniko ditu Orfeoia.

## Zabalotegiko dorrearen behea antzoki bihurtzeko proiektua

Udaleko *Kultur Taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak* Zabalotegiko dorrearen behean dagoen lokala antzoki bihurtzeko asmoa azaldu du. Lehendabizi, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta Abesbatzak entsaiuetarako erabiltzen duten lokal honetako eszenatokia haunditu beharko litzateke, antzerki-talde gehienek orain dagoen eszenatokia baino haundiagoa exijitzen bait dute beraien emanaldietarako; jarlekuen lehen ilara kendu eta eszenatokiak 10x7,5 metroko neurriak izango ditu. Bigarrenik, lokala pintatu eta txukuntzeko lanak egingo lirakeke.

### 175 pertsona

Lan hauek burutuz gero, 175 pertsonentzako lekua izango du lokalak,



antzerki emanaldietarako kopuru egokia kultur arduradunen iritziz, orainarte antzerkia eman izan ohi diren lokalak haundiegiak suertatu baitira, kontutan hartuz emanaldi hauetara joan izan den jende kopurua.

Lanen aurrekontua eskatu da jadanik obrak

lehen bait lehen hasi eta ahal bada behintzat, martxoaren lerako amaitzea espero da, egun horretan, Taun-Taun prestatzen ari den lan berriaren aurre-estrenaldia egin ahal izateko. Martxoaren 8an berriz, emakumearen egunean, *In fraganti* obra antzes-tuko litzateke bertan.

## Elurra teilatuan...

Aspaldiko partez elurra izan dugu Bergaran aste honetan. Asteazken arratsaldeko ordu biak aldera elurra egiten hasi eta, handik pare bat ordura, txuri txuri eginda genituen inguruko mendiak eta herriko kaleak. Neska-mutikoez, ilusio haundiz elurretan jolasteari ekin bazioten, gidariez berriz, nahiko arazo izan zuten Bergarako sarreretan eta, herri barruan ere, kotxe ilada haundiak sortu ziren. Elgeta eta Elusu itxita egon dira eta Bolura igotzeko kotxeak kalean aparkatu beharra zegoen.



**GALLASTEGUI**  
**Jostundegia**

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro 17, Tfnoa: 76 10 85

**MARKIEGI** Automobilak

Automobil eta kamioien  
karrozeria

Lelzeaga 1 (San Lorentzo Pol/Ind.)  
Tfnoa: 76 35 09 BERGARA





### □ UNED

Bergarako UNEDeko *Geografia eta Historia Departamentuak* otsailaren 15etik apirilaren 11ra bitarteko larunbatetan emango den *Kuaternarioa Euskal Herrian* ikastaroa antolatu du. Matrikula epea otsailaren 13ra arte izango da zabalik eta informazio gehiago UNEDen edota 761342 telefono zenbakira deituz lortu dezakezue.

### □ Marrazkilariak

Bergarako *Kultur Ekintzak*, margolariekin egin zuen bezala, herrian diren marrazkilarien erakusketa antolatzeko asmoa azaldu du. Bere lanak erakusketa honetara aurkeztu nahi dituzten marrazkilari guztiek, arratsaldeko 6etatik 8etara, 763630 telefono zenbakira deitu dezakete Kultur Ekintzakoekin harremanetan jartzeko.



## Ubera auzoko jaiak

Astebukaera honetan *San Paulo jaiak* ospatuko ditu *Ubera auzoak*. Larunbatean, San Paulo egunean, Meza Nagusia izango da 11tan eta ondoren auzoko hurrek antzerki emanaldia eskeinitako dute. Arratsaldean, 3 t'erdietan, *Lokatz Ziklismo Eskolak* antolaturik, 1. go Ubera Bergarako Mendi Bizikleta Txapelketa jokatu da. Karrera honetan parte hartu nahi duten guztiek egun berean ordubietatik 3ak arte izango dute zabalik izen ematea. Antolatzaileek

zirkuitu erakargarria prestatu dute karrera honetarako eta, horrez gain, senior, gazte, beterrano eta emakumeen kategorietan sailkatutako lehenengoentzat sari interesgarriak izango dira. Gauean berriz, trikitalariek erromeria eskeinitako dute eta Uberara hurbiltzen direnek gau ederra pasatzeko aukera izango dute.

Bukatzeko, igandean, hilak 26, San Paulo txiki eguna ospatuko da; 11tan Meza Nagusia eta ondoren Nagusien Pelota Txapelketako finala.

### □ 7 margolari

Urretxuko *Jose Maria Iparragirre Institutuak*, bere 25. urteurrena ospatzeko antolatu dituen ekintzen artean, 7 bergarar margolari erakusketa prestatu du. Bergarako *Miguel Okina, Juan Jose Altuna, Abdon Juaristi, Bingen de Pedro, Ricardo Azkargorta* eta *Luis Laskurainenak* eta *Pello Alberdi* elgetarraren lanak daude bertan ikusgai otsailaren 1era arte.

### □ Aldizkaria

*Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* argitaratzen duen aldizkaritxoaren 6. zenbakia kalean da jadanik. Oraingoan, gorputza zaintzeko gomendioak, alarguntasun pentsioari buruzko legedia edota heziketari buruzko artikulua aurki ditzakegu *debaldeko* aldizkari honetan.

## TOKI-EDER Taberna

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

## LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

## ELADIO OINETAKOAK

Oinetako konponketa



MATXIATEGI 2,

Tfnoa: 76 54 60

BERGARA





## Kartel lehiaketa

Bergarako Udaleko *Jai Batzordeak* aurtengo karnabaletarako kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan Bergarako edozein lagunek parte har dezake, bete beharreko baldintzak honako hauek direlarik: Kartelaren neurria 50x35 zm.koa izan beharko da, kolore eta teknika librea erabili ahal izango da eta, azkenik, aurkeztutako lan guztiek "*Begarako Haratuzteak. 1992*" derri gorrezko testua eraman beharko dute.

Lan guztiak otsailaren 3a baino lehen aurkeztu

beharko dira Kultur Etxean, egilearen nortasuna azaldu gabe eta kartelen atzekaldean lema bat jarritz. Sobre itxi batean lema bera eta egilearen datuak azalduko dira. Irabazleak 50.000 pta.ko saria jasoko du. Saria eman gabe gelditu daiteke kalitate onik ez balego eta saritutako kartela Udalaren esku geldituko da, honek kaleratzeko eskubidea izango duelarik. *Jai Batzordeak* izendatutako epaimahaiak karteletako jai giroa hartuko du kontutan batipat.

## Txinpartak

✓ Astebukaeran Bergarako igerilekuan *Gipuzkoako Igeri Txapelketak* jokatu direnez, igerilekuak itxita egongo dira, ostiraletik, hilak 24, hurrengo asteleheneko ordubiak arte. *Kirol Zerbitzuak* eragozpenak barkatzeko eskatzen du.

✓ Angiozarko *Parteitti* auzoak *San Bizente jaiak* ospatuko ditu igandean; 12 t'erdietan meza izango da eta, ondoren, bertara hurbiltzen direnen ohiturazko bedeinkapena.

✓ Antzuolako *Gazinemak Mira quien habla* filmearen emanaldia iragarri du ostiralerako, hilak 24. Eta larunbatean, gaueko 10etan ere, *Taun-Taun Txotxongilo Kolektiboak Bi kate* obra antzestuko du.

✓ San Antongo jaietan jokatu du *Tute eta Mus Txapelketan*, *Ramon Guridi* eta *Javier Azkaratek* osatutako bikoteak museko garaipena lortu zuen. Tuteko finalean, berriz, *Alejandro Lazaro* eta *Enrique Pombar* izan ziren txapel-dunak.

✓ *Txapa Irratia* zenbait emisio proba egin ditu azken asteotan eta gaur ostirala, hilak 24, Kultur Etxean, programazioa zehazten joateko bilera izan da.

✓ Asteartean *Bittore Aierbe*, *Jose Luis Loidi*, *Pedro Belastegi*, *Maite Guridi* eta *Maria Eugenia Grazia* bergararrak epaitu zituzten Madrileko Audientzia Nazionalen. Hemendik astebete ingurura sententzia jakineraziko da.

## KIZKUR



**Ileapaindegia  
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



## ETXEBERRIA

**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

**Kirol Moda  
SURF**

## AISOR

**Rip Curl , Town country, Quick Silver, O'Neill**

Bidekurutzeta 7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA



MAYCeko merkatal zuzendariarekin

## Ignacio Erce:

**"Sei hilabete egon gara akordio honetara heltzeko"**

MAYC, 1.941.etik garbigailuak egiten. Estatuan bere arloan aintzindari izan den enpresa, krisialdi sakonean murgilduta aurkitu da azken urteetan. 93an mugen irekitzeak ekarriko duen kompetentzia zorrotzari duintasunez aurre egiteko CANDY italiar multinazionalarekin elkartu beharra izan du. Linea zuriko sektorean punta-puntan dagoen enpresak MAYCen etorkizuna ziurtatu omen du, honen ehuneko 64a erostean.

Sinatu berri den aurre-kontratuaren nondik-norakoak Ignacio Erce enpresako gerenteak argitu dizkigu.

Ignacio Ercek, 54 urte ditu eta 28 eman ditu MAYCen lanean, azkenengo 23ak enpresako merkatal zuzendaria.


*- Azken egunotan notizia iturri bihurtu zaigu MAYC. Enpresa italiar batek zuk zuzentzen duzun enpresako zati haundiena erosi du...*

- Horrela da. Sei hilabete egon gara hizketan akordio honetara heltzeko eta joan den astean langileei, Jaurlaritzari eta komunikabideei

CANDYrekin sinatutako aurre-kontratuaren berri eman diegu. Erosketa ez da oraindik gauzatu: baldintza batzuk betetzen badira salduko diegu. Orain aurre-kontratu bat sinatu besterik ez dugu egin.

*- Zeintzuk dira baldintza horiek?*

- Legeak ezartzen dituen guztiez gain (atzerrian egiten diren inbertsioetakoak, elkarteko estatutuak...), etritzia CANDYren industria es-



trategiarekiko, Jaurlaritzak duen eritzia erabakikorra da italiarrentzat. Gobernuak akordioaren berri badu eta bere lehendabiziko eritzia oso positiboa da. Eritzi guztiak kontutan hartuta kontratua gauzatzea gertatzen zaigu.

*- Badirudi azken urteetako saiakerak gauzatu direla eta azkenean sozioa aurkitu duzuela...*

- Enpresa ezberdinekin aspalditik genbiltzan harremanetan. Orain lortu dugun akordioa ez da finantza operazio bat izan, gure asmoa ez da

izan burtsan akzioak saltzea. Ondo pentsatutako erabakia izan da. Azken finean, kontutan hartu behar da datorren urtean izugarritzko kompetentziari aurre egin beharko diogula, inguru sozioekonomikoa goitik behera aldatuko da eta. Horregatik enpresa osagarriren baten bila ibili gara, eta azkenean aurkitu dugula esan genezake, operazioarekin biok irabazten dugulako. Anekdotan moduan esango dizut, MAYC izan zela estatuan garbigailuak fabrikatzen hasi zen lehen

## ETXAGI

### Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



## GAZTELV S.A.

### Burdindegia

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



enpresa eta CANDY, berriaz, Italiako aurrenekoa izan zen. Guk 1.941ean ekin genion eta italiarrek, 1.945ean.

- *Garai batean FAGORrekin elkarlanean ibili zineten...*


- Bai, mondragoetarrekin harreman komertzial onak izan ditugu eta etorkizunean horrela jarraituko dugu seguruen: ura erabiltzen duten berogailuak eta termo elektrikoak CANDYk ere ez ditu fabrikatzen eta beraz, aurrera begira ere, Fagorrekin harreman hestua izango ditugu.

- *Eta errekonbertsiorik, despidorik izango da?*

- CANDYk gure enpresaren zati haundiena hartu badu, orainarteko eginkizunarekin jarraitzeko asmoarekin izan da, eta goi mailako teknologiarekin jarraitzeko gainera, Europan konpetitibo izateko, alegia. Errekonbertsioa, despidoa, ... hitz horiek ez ditugu aipatu ere egin. Horrek ez du esan nahi teknologiararen eta merkatuaren garapenak langile kopuruaren murriztea edo eta ugaritzea ekarriko ez duenik. Teknologia mailak eta produktuak saltzeko gaitasunak baldintzatzen dute enpresa bateko langile kopurua. Bi aspektu horiek hartu behar dira kontutan ez besterik.

## Sindikatuak baikor baina zalantzekin

**MAYCeko sindikatuen artean baikortasuna eta era berean zalantza da nagusi. Enpresa komitea 17 ordezkari osatuta dago: CCOOek 6 ordezkari ditu, LABek 5, ELAK 4 eta UGTk 2. Eurongana jo dugu beren eritziak azal ditzaten**



**Ramon Romero**  
CCOO

Europa mailan enpresa indartsua da CANDY, beraz, lehendabiziko irakurketa eginez, multinazional honek MAYC erostea positiboa izan daiteke, enpresa bergararraren isolamendua hausten duelako. Baina, jakin nahi duguna zera da, etorkizunera begira multinazional honen egitasmoak.



**Pello Muguruza**  
LAB

Italiar enpresa multinazional honek MAYCeko zati

haundiena erostea MAYC-entzako irtenbide bat izan daiteke. Alde horretatik begi onez ikusten dugu, baina enpresaren asmoak jakin arte itxoin beharko dugu. Bestalde geure zalantzak ditugu: CANDYk MAYCen ehuneko 64a erosi du eta Bilboko Komertzial (MEM) osoa. Ez dakiguna da Bilbo-koari lehentasuna eman eta MAYC baztertuko duen ala ez.



**Pablo Rodríguez**  
ELA

Enpresa berriaren industri plangintza ez dugu ezagutzen eta momentu honetan informazioa jasotzen ari gara. Dena den, argi dago MAYC finantza krisi sakon batean murgilduta dagoela eta beste enpresaren batekin elkartzea behar-beharrezkoa zaiola. Horregatik ondo ikusten dugu Europako enpresa sendoenetariokarekin elkartzea. Ikusi egin

beharko ditugu CANDYk etorkizunerako dituen asmoak.



**Miguel Tola**  
UGT

Operazio berria positiboki baloratzen dugu, orain arte moduan jarraitzekotan etorkizun onik ez genuelako: MAYC oinarri sendorik gabeko enpresa da gaur egun, ia kapitalik gabeko enpresa delako eta merkatuan isolaturik dagoelako. Horregatik multinazional batekin elkartzea beharrezkoa zen.

Baina errezeloz hartu dugu notizia, enpresa berriaren asmoak ez ditugulako ezagutzen. Direnak direla baikor gara etorkizunari begira, MAYCen irtenbide bakarra beste enpresa batzuekin edo eta multinazional batekin elkartzea zelako.

**Aldoka  
Maldoka**  
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

**Taberna kafetegia**  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

**BERGARA**  
**Karrozeria**

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubieta 46  
Bergara



# San Anton

## erditik gora zurezkoa

**M**ekolaldetik kalera gatozela, eskubi aldean dagoen muino batean ikusten dugu San Anton ermita. Ikusten dugu, eta ikusten gaitu; horrelako toki berezian altxatzen da. Ez balitz bere buru aldeko kanpaiagatik baserri bat gehiago emango luke.

Ermita, erditik gora zurezkoa zan, eta eguraldi txarrek zekartzaten eragozpenengatik paretez itxitzea erabaki zuten 1.692 garren urtean. Lehen ermita eta etxe asko izandu ziran zurezkoak. Berrogeitamar urte beranduago, arrazoi berdiñagatik eta ermitan sartzan uragatik, elizpea egin zuten. 1.742an zortzi banku egin ziran, gaur lau gelditzen badira ere, eta bizkarraldeko babes mugikorretik datorkie

bere berezitasuna, nahi baduzu aldarera begira nahi baduzu korura eseri zintezkela.

### Lapurreta

Orain urte batzuek bi irudi lapurtu zituzten, bat Santa Katalinarena, eta San Anton zaharra izan zitekeenarena bestea. Bere zailtasunagatik harrigarria bada ere, lehenengoa birreskuratu genuen antikoario baten etxetik eta ertzainen laguntzarekin.

Azkenengo gerratera arte igande arratsaldetan elizkizuna egiten omen zan San Antongo kanpaiari erantzunez; auzoko eta inguruko baserritar asko joaten omen zen bertako gizon eta emakumeak zuzendutako errosario eta akto fede-



*Santa Katalinaren irudia San Antongo ermitatik lapurtu egin zuten orain dela urte batzuk, baina berreskuratu eta gaur egun Santa Marinako sakristian gordeta dago. Ermitan, bertan, argazkian ikusten den San Antonen irudia aurki dezakegu.*

koak erreztatza.

Behi bat umeegiteko edo gaixorik dagoenean kandela bat eramaten omen zaio San Antoni eta erreztatu.

Bere egunean jende asko joaten omen zan ermitara meza entzutera,

inguruetako baserrietan zeuden Bizkaiko eta Arabako artzaiak ere bai, eta horiek mezak ateratzen omen zituzten, eta kandelak eta limosna egokiak ematen.

*Imanol Sorondo*

**SURPE**  
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

**FANCY**  
GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

**LARREA**

TABERNA

Kale Barren 17  
ANTZUOLA



**Gaspar**

Jatétxea, Txokolategia,  
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



# Bi hamarkada uretan

XXV. Gipuzkoako Neguko Igeriketa Txapelketa jokatuko da astebukaeran



## Mariposatik tximeletara

**I**geriketa arloan Bergara Igeri Elkarteak aintzindari lanak egin izan ditu 20 urte hauetan.

Hizkuntzaren arloan ere talde honak aintzindari gisa jokatu zuen 80-81 urteen inguru hartan, ia erabat gazte-leraz funtzionatzen zuen igeriketa mundu hori, euskalduntzeari ekin zionean.

Euskaraz entrenatu, euskal giroa sortzen saiatu igerilarien artean, txapelketetako lokuzio lanak euskaraz egiten hasi, jakinerazpenak, iragarki-ak...

Lehen saio hauek ez ziren etxean geratu, Ordizia, Zarautz, Legazpi, Tolosa... laster hasi ziren Bergarak urrutako bide beretik, Gipuzkoa osoko txapelketetan eta baita Euskadi mailakoetan ere bi hizkuntzak, edo euskara nagusi izatera iritsi arte.

Hala ere, igeriketaren mundutxo honetan euskararen inguruan sortutako hormatxo ahula da, zuloz betea, euskararen inguruko horma gehienak bezalaxe. Bergara Igeri Elkarteari nire animoak eta bultzada bidaltzen dizkiot lerro hauetatik horma hori sendotzen jarrai dezan, leudekeen jarioak apurka apurka estaliz.

Iñaki Artola



✓ **Elkartearekin loturik dauden edo eta izan direnak bilduko dituen afari eder batekin ospatuko du Bergarako Igeri Elkarteak, bere XX. urtemuga.**

✓ **"Zipristinak", Bergarako Igeri Elkarteak kaleratzen duen aldizkariaren hirugarren zenbakia, astebukaeran banatuko da.**

✓ **Larunbatean eta igandean Bergaran jokatuko den Gipuzkoako Txapelketan, igerilarien denborak neurtzeko markagailu elektronikoak estreinatuko dira.**

✓ **Bittor Alberdi bergararra dugu Gipuzkoako Igeri Federazioko buru.**

**AGENTZIA:  
J. ELKORO**

Ibargarai 2, behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

UNIBER

HISPANA



# Hogei urteko iharduna...



**Sabin Gallastegi**

*Elkarteko lehen presidentea*

“Elkartearen lana guztiz positiboa izan da, bai antolakuntza eta bai kirol emaitzen aldetik ere. Hala ere, gure lanak ez du jarraipenik izan errendimendu altuko zentruetan esate baterako.

Igeriketak ez du behar beste laguntzarik jaso instituzioetatik eta, katalanekin konparatuta, adibidez, geure azpiegitura atzeratuta dago.

Kirol hau baztertua izan da beti eta horrela ez dago ezer ganorazkorik egiterik; oraindik laguntzak jaso eta instalakuntzak hobetzeko gogor egin behar dugu lan”.

**Aintzane Arizmendi**

*Igerilari ohia*

“Bergarako Igeri Elkarte sortu zenean, 9 urterekin, hasi nintzen igerian eta 17 urte nituela utzi nuen taldea. 8 urte horietan Gipuzkoako bederatzi marka hautsi nituen.

1.977, 78 eta 79an *Getaria-Zarautz* klasikan emakumezkoen markak hautsi eta erretiratu nintzen arte eutsi nien”.



**Jon Muniategiandikoetxea**

*Igerilari ohia*

“Zazpi urte eman nituen Igeri Elkartean, 7 urterekin hasi eta 14 egin nituen arte. 1.983-an, nere azkeneko urtean, Espainiako Txapeldun izan nintzen 200 metro estiloetan.


Malagako errendimendu haundiko eskolan sartzea proposatu zidaten baina ezetza eman nien, ordurako igeri egiten aspertuta, erreta, nengoelako”.



**Iñigo Gallastegi**

*Igerilaria*

“1.979an ekin nintzen igeri egiten eta urte berean, 5 urte nituela, lehenengo domina lortu nuen Arrasaten. 1.989ko udan Madril-en jokaturako Espainiako Txapelketan nere adinekoen artean hirugarren izan nintzen; horixe da nere lorpen garrantzitsuenak. 19 urte ditut eta Euskadiko Txapeldun absolutua naiz bizkar erako 100 eta 200 metrotan”.



**M.  
OSINAGA**

**Etxeko  
erreformak**

**Sukaldeko  
altzariak**

Espaloia z/g  
Tfnoa: 76 29 85 / 76 00 57



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

**Siaska**  
Dena zure  
haurrarentzako  
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39



**KORTA-ZAR**  
Txokolategia  
Pintxo eta ogibartekoen  
espezialitatea  
Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62




# Bergarako Igeri Elkartea gaur

## Waterpoloak: sail sortuberria

Elkarteak, igerilarien kirol bizitza motza dela jakinik, waterpoloko sekzioa sortu du aurtengoan igerilariei irtenbide bat eman eta, bide batez, elkartearekin eta urarekin loturik jarrai dezaten.

Ia milio bat pezeta bideratu da waterpolora eta Daniel Lasagabaster entrenatzaile arjentinarrak 20 igerilariz osatutako taldea zuzentzen du, datorren urtean Euskal Ligan parte hartzeko ideiarekin amets egiten duen taldea.

Era berean, igerilari ohiei eta kirol hau gustoko duen edonorri ateak zabaldu nahi die elkarteak. Golak heltzeaz daude.



## Dominen bila

Lau milioiko aurrekontuarekin, Elkarteak, gaur egun, 50 igerilari eta 170 bazkide inguru ditu. Jose Mari Borja presidente delarik, Jesus Jauregi entrenatzaileak Leire Zeziaga (gazteak) eta Daniel Lasagabaster (Waterpolo) ditu laguntzaile.

Ezin ahaztu Elkarteak izan dituen presidentek: Sabin Gallastegi, Jose Mari Arizmendi, Ramon Agirrezabal, Pedro Narbaiza eta Bittor Alberdi. Jesusek ere entrenatzaile sorta honen laguntza izan du: Aintzane Arizmendi, Josune Alberdi, Maite Rementeria eta Asier Irazola.

Larunbatean eta igandean berriz, argazkian agertzen direnen txanda izango da, taldeen sailkapenean eta indibidualki ere dominen bila arituko zaizkigu eta.


ZORIONAK aldeztatik igerilari guztiei eta, bereziki, modu batean edo bestean, Bergarako Igeri Elkartea maila gorenetara heltzeko kolaboratu duten guztiei.

# BERROYA, E. A.

INPRENTA

OFFSET - TIPOGRAFIA  
ENKUADERNAZIOA

Komenio 2  
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA



## BERGARAKO UDALEKO KIROL ZERBITZUAK

zorionak opa dizkio

Bergarako Igeri Elkarteari  
bere 20. urteurrenean





## Jesus Jauregi: "Maila onean gabilitza"

20 urte Igeri Elkarteak, 20 urte Jesus Jauregi bertan lanean. Hasieratik izan da igeri taldearen entrenatzaile. Bergarar gehienek ere bere eskutik ikasi dute igeri egiten. Elkartearen historia berak bezala ezagutzen duenik ez da Bergaran.



- Nola lortu zuen Bergarak lehenengoetariko barruko pizina egitea eta igeri elkarte sortzea?

- Luis Laskurain orduko alkateak horren beharra zegoela ikusi eta lan haundia egin zuen horren alde; 71ko uztailan inauguratu zen eta Udaletxeak behar zuen monitorearen lanposturako aukeratu ninduten; pizinetara etortzen zen talde batekin harremanetan jarri eta guztiok igeri elkarte bat sortu beharra zegoela ikusi genuen; handik gutxira Bergara K.E.ren beste sekzio bat izatera pasa ginen.

- Igeriketarako zale-tasuna ere piztu beharra zegoen...

- Ikastaroak antolatu

behar izan genituen igerilariak aukeratu eta taldea osatzeko. Igerian egiten erakusteko ere, hasieran, pelikulen bitartez egin behar izan genuen, bistatik ikasi beharra baitago lehenbizi. Jendeak kirola ezagutu zezan ere hainbat txapelketa antolatu genituen eta pixkanaka taldea eta elkarte bera sendotuz joan ziren. Eta emaitzak ere berehala heldu ziren...

- Eta zergatik aldegin zenuten B.K.E.tik?

- Beraien aldetik laguntzarik jasotzen ez genuelako. Hortik aurrera ez dugu izan inoren atzetik ibili beharrik; hasieratik geure zuzendaritza batzorde propioa izan dugunez, ez zen ba-

tere zaila izan handik aurrera geure kontura jarraitzea.

- Zeintzuk izan dira momenturik onena eta txarrena?

- Sasoirik onena 78aren inguruan ezagutu genuen, urte horretan Gipuzkoako talderik onena izan bait ginen. Urtero egiten zen herri barruko igeri txapelketan ere 300 gazte inguruk parte hartzera heldu izan zen. Eta txarrena, ba talde hartako igerilari gehienek ia batera aldegin zutenean, batxe izugarria gertatu zen.

- Eta zeintzuk izan dira igerilari bikainenak?

- Fakultate aldetik, Ion Muniategi izan da eduki dudana igerilaririk


onena; erretiratu zenean ere esan nuen jarraitu izan balu gaur egun Estatuko onena izango litzatekeela, baina ez zuen sufritzen eta oso gazte zela utzi zuen. Baita Aintzane Arizmendi eta Iñigo Gallastegi ere; bi hauek ez dute izan horrenbesteko klasea baina gogor entrenatu dute beti.

- Eta zergatik ez da Estatu mailako igerilaririk atera?


- Batez ere espazio eta denbora faltagatik. Izan dira bai oso onak irten zitezkeenak, baina kasu batzuetan interes faltak eta beste batzuetan hemen hasitako progresioari errendimendu altuko zentru batean jarraipena emateko aukerarik ez izateak bertan behera utzi dute zenbait igerilari-  
ren etorkizuna. Orain ere ez ditugu behar bezala entrenatzeko baldintza egokiak, instalakuntzak hobetzea komeniko litzateke.

- Etxean jokatu den txapelketa honetarako helburuak?

- Taldeetan, hiru lehenengoen artean izatea espero dut, goian gaude oraindik. Bakarka ere domina dextente lortzea espero dut, talde majoa osatu dugu aurtengoan ere.



**Artzamendi S.A.**



**ERAIKUNTZAK**

Burdiñate 5, behea  
Tfnoa: 76 27 58  
BERGARA



# Bildu dudan sortatxotik...

*Errotari eta ogigigileak*

Antonio Urzelai

**L**anbide edo irabazbide hauetan aritzen ziren gizon-zakoak bazuten halako patxada berezi bat garbi nabaritzen zitzaiena. Ez dut esan nahi, errotari eta ogigile guztiak alaiak zirenik. Baziren prakaerre pare gabekoak, mota guztietan bezalaxe. Nolanahi ere, bazeukaten ikutu berezi bat, beste lanbideen gain, ingurukoak barre puntuan jartzen zituztelarik.

Sarritan egondu naiz pentsatzen, zein izan zitekeen lasaitasun horren eragina. Ez dut asmatuko beharbada zuei argi adierazten, baina saiatuko naiz neure iritzia aurkezten.


Ikus dezagun aurrenik, gizon hauen zeregina:

Batetik, baserritarren laboreak eiho errotan eta egindako lana irinetan eskuratu; bestetik, gainezka lortutako irinarekin, ogia egin kaltetarrentzako, diru truke.

Beren lana, goizean goiz hasi eta beranduan bukatzen zuten. Azkarra egin lehengo; ogia, ondoren; bezeroei euren etxeetan eskuratu, eguneroko ogia, eta, errotariak zaindu. Ez da ez, txantxetako jardunaldia, noski.

Ostera, lanak aparte, denbora haietako bizimodua kontutan izanik, trankil bizi izatekob beste arrazoi bazutela esango nuke.

Familiarako elikadura nagusi-enak etxean zituzten (gari, arto,



garagar...), eta, gainera, dirua, beste zeregin batzuetarako. Ez zen eskuarte makala, halajaina!, patxadan bizi izateko.

Egoera hau izan zitekeen sorburu garrantzitsuenetako bat, euren izakera adierazi zezakeena.

Horretariko errotari, ogile eta banatzailearen kontuak dituzue hemen, segidan:

Goiz baten, ogiduna, berandu ari zan ogi banaketan, baina tenplau. Bezeroak, pozik egoten ziren hala ere, ogi banatzailea zirikatzeke. Bazekiten aurrez, freskuran izango zutela barregerri.

Bere zai zegozan bezeroen tartean bazen emakume gazte bat, aldizka, bere izekoarekin bizi zana. Hots egiten zuenean, eguzki begira ematen zituen pausoak, eta, beroaren ihesi, Kantauri ertzera. Izenordezkoa, "prinzesa mafalda" jarri zioten. Inoiz ez zuela errespetorik galdu auzoan esaten zeten.

Aipatu dugun emakume hau, bezero denen aurrean agertu ei zan, ogigileari zerbait esan nahiean. Bera izan zan lehenengo mintzatu zitzaiena.

- Zer ordu dira honek?

Hamaikak jo dute eta ez zera lotsatzen?

- Bai, hamaikak joko eutzuen, baina, zu lasai, aurrera be joko deutzuen esperantza galdu gabe.



## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.**

**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



# ONENA

## TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 76 19 56  
ONATI

# FS

oto sistema

### ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

# ANDIZI

### ERAIKUNTZA MATERIALEN BILTEGIA

Azulejo erakusketa • Onduline  
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA

## Zer egin beharko litzateke herrian, antzerkia bultzatzeko?



**Fernando Sanchez**  
28 urte, langabetua

Udaletxeak herriko taldeak lagundu beharko lituzke, eta baita antzerki lanak programatu ere.



**Felisa Rodriguez**  
37 urte, etxeakoandrea

Gazteentzako antzerkia ekarri beharko litzateke, gazteria antzerkigintzara animatu.



**Justi Larrañaga**  
55 urte, langilea

Herriko antzerki taldeei laguntasuna eskeini, eta lokalen bat egokitu beharko luke udalak.




**Iñaki Ugarteburu**  
29 urte, langilea

Teatro emanaldiak ugaritu eta gazteen artean antzerkiarenganako zaletasuna piztu arazi.

# ERROTA - GAIN

## Aluminiozko arozgintza



- **Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.**

- **Galdaragintza orokorrean**

Labegaraieta - Hazkarrutz Auzoa Tfnoa; 76 32 40  
BERGARA






## Arrak garunak jan

Televisión Españolak, Tele 5-k, Antena 3 telebistak eta Telemadrid kateek gauera pasatu dute kokainaren kontrako iragarkia, gazte bati sudurzulotik arra sartzen ikusten delako, telebista zuzendarien ustez umeentzako gogorregia izan baitaiteke.

Bai, egia esanda spot hori gogor xamarra da, baina umeek gustoko dituzten zine fantastiko eta beldurrezkoetan sarri ikusten dituzte erraiak eta izaki nazkagarriak, eta spot hori beste horiek aldean umeeria baino ez da. Umeek arra sudorzuloan sartzen besterik ez dute ikusten, beste balorazio guztiak aurreragorako utzita, eta nagusi askok baino errezago jasaten dute hori.

"*Ten cerebro, pasa de la coca*". Horixe da kokainaren kontsumoaren kontrako iragarkietan ikusminik haundiena sortu duenaren slogana, telebista ikusleen artean oso eztabaidatua bai taberna, kale zein lantegietan; eta kokainaren kontsumoari buruzko eritziak gorabehera, hauts zuri horrekiko susmo txarra piztea lortu duena. Baina telebistako arduradunek gauera pasa dute iragarkia umeen aitzakian. Izan ere, iragarkia gogorra eta zenbaitentzat mingarria da, eta horrez gain, oso spot ona.

**Juan Antonio Migura**



## Aluminiua

Kuadrua, platuak, kanbixuak... ixa pieza guztiak aluminiozkuak dauzke gure bizikletak. Arin-arifnak, onak eta ez hain karuak. Bata Shimano, bestia Sontour, danak japonesak.

Baina joan dan egunian tripak nahastu zotan gauza bat jakin neban: japonesak Brasilen jiraten dabe aluminiua. Bahia inguruko bauxita minen jabe dira eta bertan milaka brasildarrek egitten dau lan kondizifio negargarrietan eta miserixa bat irabazizaz. Bauxitia aluminio bihurtzeko fabrikak be Brasilen dare eta dagonik industria kutsakorrena da. Gainera argindar asko bihar dau eta hortarako basuak deforestau dittuen zentral elektrikuak egin dira eta zentral termiko keetsuak. Sao Paulon ez ei da ez zerurik eta ez mendirik ikusten urte osuan.

Jakina, japonesei hiru txakurtxiki kostatzen jakue berez hain karua dan aluminiua. Irabazliak: produktuak lantzen eta saltzen dittuzten japonesak, karriatzen dittuztenak, dendarixak eta gu, konsumitzaileak. Galtzaileak: Brasilgo langile eta natura izurratuak.


Bizikletan nabilenian ipurdiko minaz gain buruko min puskat pe sentitzen hasitta nago aspaldixan.

**Juan Martin Elexpuru**


**IZENEMATEA:** Barrenkale 33, 2.a  
Tfnoa: 76 44 53

**EPEA:** urtarrilaren 20tik 28ra  
bitartean

**ORDUTEGIA:** arratsaldeko  
14.30etatik 18.30etara



**UDAL EUSKALTEGIA**



**EUSKALDUTZE ETA ALFABETATZE  
taldeetan hutsik dauden plazak betetzeko deialdia.**



## Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## BOLINTXO

*Kirola egiteko behar den guztia*

Ibargarai 10,  
Tfnoa: 76 38 32

Paper pintatuak - Pinturak

## A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

## IRUBIDE

### Taberna

Bazkariak, gosariak, afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

## Hagin klinika

*Idoia Iriarte Irureta*

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65



## MAHER Biltegiak L.E. Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

### Argazki rallyko sariak

Joan den ostegunean, Pol-Poleko Argazki Sailak pasa den abenduaren 8an antolatutako argazki rallyaren sari banaketa izan zen Pol-Poleko Aretoan. Epaimahaikoen iritziz, **Migel Angel Iriarte** azpeitiarrak aurkeztu zuen diapositiba sortarik onena eta berak jaso zuen lehen saria; **Alejandro Berriozabal** berriztarrak diapositiba onenaren saria irabazi zuen, **Rafael Cabello** eibartarrak Bergara gaiari zegokiona eraman zuen eta azkenik, **Hilario Azkargorta** izan genuen herriko partaiderik onena. Guztira 60 argazkilarik parte hartu zuten eta sari banaketaren aurretik eskeinitako diapositiba emanaldian argazki benetan politak ikusi ahal izan ziren.



### Urte askotarako!

Bere 96. urtebetetzea zela eta, pasa den ostiralean **Basilio Flores "Farruco"**ri festatxo bat eskeini zioten jubilatuetako lagunek. Salamancan jaio eta orain 25 urte ingurutik hona Bergaran bizi den Basilio, egunero jubilatuetara hurbiltzen den bazkide zaharrenetarikoa dugu. Oraindik ere sasoi onean dagoela erakutsiz, lagunek eskeinitako tartan, Basiliok kandela bat ere ez zuen piztuta utzi putz horren ondoren... ZORIONAK!!!





❑ **Danborrada**


**San Sebastian eguna**

ospatzeko badirudi ez dagoela Donostiara joan beharrik. Begira bestela argazkian agertzen diren Aranzadi Ikastolako haurrek zer nolako itxurarekin azaldu zitzaizkigun joan den astelehenean. Eguraldi txarragatik kalera irten ez arren, eskolaurreko haurrek *Donostiako martxa* indarrez jotzeari ekin zioten hainbat eskoletan. Sarriegik burua altxatuko balu...



*Zertan dihardute ba?*

**IÑAKI IRIZAR**



25 urteko bergarar hau Leitzarango autobidearen auzian irtenbide kontsentsuatua negoziatzeko sortu berri den *Lurraldeako Ekoloji eta Gizarte Aholkurako Batzordeko* kide izendatu dute.

**JON ANDUEZA**



Berrigarako kazetari izandako 25 urteko arrasatear honek *Donostia Hiria* izeneko literatur lehiaketaren euskarazko ipuinen sariketan lehen saria lortu du "*Kostaldean, Absaloneko herriska ttipian*" lanarekin.

**A  
R  
R  
A  
N  
O**

Kruz Gallastegi BERGARA

**G  
A  
N  
B  
A  
R  
A**

**Berezitasunak:**  
*Pintxoak eta kafea kremarekin*

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

**T  
B  
E  
R  
N  
A**

**ezpeleta etxea**

Harizko eta kotoizko goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA



# Izkirimiriak

Afalostean, zer jai-giro modu zegon ikusi bear genuela ta elizpera zuzendu "gintzan". Urte aietan bazan Mondragoen oitura eder bat: San Juan aurregunean, edo obeto esateko aurrengauetan, oso berandu izaten bait-zan, Eliz-Nagusiko elizpean jendea bildu ta elizako ateburuan dagon San Juanen irudiaren aurrean "Igaz ere San Juan..." ereserkia kantatzeko oitura guztiz ederra. Ez zan Bergarako Orfeoian beste kopla eskatzen; al zuenak al zuena, baiña ori bai, indartsu ta biotzez. Ta iñor ala motel-xamar ari bazan laister entzungo zuen... "I, kantau biok ala zer ein biok?..."

Urrindik somatu genuen berbaroa jendetza aundia salatzen zuen... Ain zuzen, gu elizpera eltzen eta an

ikusten degu aurrerako baiña albotarako borondate geiago zuen gizon bat beste biren artean elizpetik atera ta an orma baten kontra jartzen esaten ziotelarik... "gero gura bok etxera lagun eingo dustagu baiña ez barriro etorri guri gobait eitten!..." Urreratu giñanean, "ormari eusten" ari zana negarrez zego la oartu giñan...

- Zer pasetan jak? - galdegiten dio nere lagunak-

- Negarrez au (ago)?...

Orduan besteak besoa jaso ta elizpera zuzenduaz erantzuten dio anpurutsu (seriotasun aundiaz)...

- Negar?, negar esaten dok?..., eingo etxuat ba negar, ori, elixpeko koxkor kuadrilliori ikusitta?...

**Txomin Amasorrain**

# Antzinako kontuak

## Oroituz

Iazko urteko azken egunetan, Euskal Herriaz, orohar, eta bereziki Deba haraneko gai desberdinez arduratu ziren bi ikertzaile, Joxe Migel Barandiaran eta Felix Ugarte, hil ziren.

Ospetsu eta zahar joan zaigun lehenak ez du aurkezpen haundirik behar, jende gehienak ezagutzen bait du. Bigarrena, aldiz, gaztea zen oraindik, eta oso gutxi ezagutua, bere inguruko jendeak izan ezik.

Joxe Migel, Euskal Herriko ikerkuntzan urte asko eman ondoren, lan oparoa eta ordainezina burutu eta gero, apalki, bere bizitza gutzia bezala eta zarata handirik gabe (ingurukoek, batez ere politikariek eta hauen altaboz bihurtu diren komunikabideek atera zutena ezik), urteen poderioz gertatu ohi den bezala, joan zaigu. Felix, oster, gazte (46 urte besterik ez) eta mila proiektu buruan zituela, bizitzeko denborarik eduki izan ez balu bezala, eraman du odoleko gaitz gaizto bategen.

Lehenak, mirespena eta eskola, bere jarraitzaile eta guzti (batzu horrela auto-

definitu dira, behintzat, eta beste batzu horrela daude errekonizuta: J, Altuna, I. Barandiaran, J.M. Apellaniz), sortu zituen. Bigarrenari, apenas bizitzak denborarik eman zion horrelako zerbaitegiteko.

Barandiaran, apaiz eta gazte (jadanik, 27 urte zituena T. Aranzadi ezagutu zutenean) hasi zen Historiarreko ikerketetan. Felix Ugarte ofatiarra, berriz, beranduko bokazioa genuen. Garay lantegia laga ondoren (30 urte baino gehiagorekin) hasi zen Bergarako UNEDen unibertsitate mailako karrera egiten.

Barandiaranek, gure haranean zehar, Historiarreko hainbat aztarnategi aurkitu eta industu zituen: Aizkorri eta Elosua-Plazentziako eremu megali-tiarra, Lezetxiki, Ermittia, Urtiaga (Deba), e.a. Felix Ugarteri, haraneko Geografia Fisikoan (bertoko sare karstikoa, geomorfologia, gaurko klima eta paleoklima) eginiko ahaleginak zor dizkiogu.

**Xabier Larrañaga**

**ELKAR**

**ELEKTRAGINTZA**

Mota guztietako instalazioak

76 00 00 BERGARA


**Zubiberri**

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K



I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

**LARRAÑAGA**

eta **ZUBIA**

**Banatzaileak**

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

**JUBILATUEN TABERNA**

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA





## Denboraldi bikaina

*Bergara Kirol Elkar-teko eskubalo* taldeak gogor ari dira aurtengoa; gazte-neskak dira sailkapenean hoberen sailkatuta ditugunak, lehenengo postuan bait ditugu Aloña-Mendi taldearekin berdindurik. Joan den astebukaeran gainera, bergararrek 15 eta 8ko emaitzarekin irabazi zieten oñatiarrei, oso garaipen garrantzitsua lortuz. Gainontzeko

taldeei dagokienez, senior gizonen taldea hirugarren dugu sailkapenean, larunbatean Donibaneri 22 eta 19 irabazi ondoren. Kadete neskek ere hirugarrenak dira, Usurbilen aurka 7 eta 4ko emaitzaz nagusitu eta gero. Kadete eta gazte mutilen taldeak sailkapenaren ardian mantentzen dira eta junior mutilek berriz, Euskal Ligako azken postuan dira.

## Txinpartak

✓ Nahiz eta joan den igandean Arretxe eta Bengoetxea IV.aren aurka 22 eta 15eko emaitzarekin galdu, *Unanue* eta *Zezeaga* binakako txapelketaren erdifinaletarako sailkatu dira. Unanue eta uberarrak *Retegi II.* eta *Maiz II.* izango dituzte aurrean larunbatean Bergarako pelotalekuan. Kanporaketa hiru partidutara erabakiko da.

✓ *Iñigo Igartua* Euskadi eta Espainiako txapelduna 17. geratu zen joan den igandean Beljikako Wossen herrian jokaturako *Superprestijioko* ziklo-kross proban.

✓ *Jose Mari Marzana "Arientza"* idi-probalari Angiozartarrak Berrizko probalekuan jokaturako *San Antongo saria* irabazi zuen.

✓ *Arrasate Kirolak* taldeko *Pedro Zalama* helmugaratu zen lehenengo igandean jokaturako *San Antongo Krossean*, *Jon Alberdi* eta *Xabier San Martin* elgoibartarrak bigarren eta hirugarren sailkatuz. Korrikalari beteranoaren trofeoa 61 urteko *Jose Luis Fernandezek* irabazi zuen.

✓ *Begarako futbol taldeak* bana berdindu zuen larunbatean *Lazkaon* bertako taldearen aurka jokaturako partiduan.

## Ski irteera suspenditu

*Pol-Pol Mendizale Taldeak* astebukaera honetarako antolatuta zeukan *Formigalerako ski irteera* astebete atzeratu da jende faltagatik; 20 bat lagunek bakarrik emana zuten izena eta beraz, Pol-Polekoek nahiago izan dute astebete itxointzea irteera egin ahal izateko beharrezkoak diren 30 bat lagun lortu izan arte. Antolatzaileen asmoa, iaz bezala, hamabostean behin irteeraren bat egitea litzateke, beti ere jasotzen duten erantzunaren arabera. San Jose zubirako eta Aste Santurako berriz, Baqueirara eta Alpeetara joateko posibilitatea aztertzen ari dira.



**OILAGORRA**  
**Taberna**

Barrenkale 21, BERGARA

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

**ORTZI**  
**Erretegia**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68





*Bergara Igeri Elkarteko 1.978-79ko taldea*

**H**ogei urte betetzen dira Bergarako Igeri Elkartea lanean ekin zenetik eta bi hamarkada horietan, bergararrak goreneko postuetan izan ditugu Euskal Herrian, eta zenbait kasutan Estatuan, jokatu diren igeri txapelketetan.

Zorioneko hogei urte horietan, asko dira nabarmendu diren bergarar igerilariak, esaterako argazkian agertzen direnak, 1.978. urtean Gipuzkoako Talderik Onenaren saria jaso zutenak.

Ezkerretik eskumara eta goiko lerrotik hasita, honako hauek osatzen zuten ekipo bikainoi:

**Atzeko lerroan:** Juanjo Basterra, Fran Etxaniz, Mirari Alberdi, Josune Alberdi, Aintzane Arana, Itziar Aldekoa, Ane Miren Madariaga, Aintzane Arizmendi, Miren Narbaiza.

**Erdiko lerroan:** Agurne Arizmendi, Josu Elkoroberezibar, Aitor Mujika, Unai Salaberria, Aitor Rementeria, Joseba Zangitu, Jose Luis Agirrezabal, Jon Muniategiandikoetxea, Ibon Arana, Jon Loidi, Josu Lazpiur, Manu Muniategiandikoetxea.

**Aurreko lerroa:** Josune Linazisoro, Igone Arana, Alazne Pardina, Miriam Perez, Lourdes Aranburu, Nerea Lazpiur, Idoia Linazisoro, Nerea Ugarte, Irune Azpeitia, Lorea Linazisoro eta Jesus Galdos.

*Argazkia: Jose Ramon Murgoitio*

**iRUDI**  
**Erlojudenda**  
**Bitxitegia**  
 San Pedro 11  
 Tfnoa: 76 51 65

**BOLINTKO**  
**OKINTEGIA, S. A.**  
 Eta orain EIBARren  
**IBARKURUTZ 4ean**  
 Tfnoa: 76 16 93      Tfnoa: 79 63 42  
 BERGARA      ARRASATE

**URRATS**  
 **Kafetegia**  
 Ibigarai Tfnoa: 76 52 92  
 BERGARA





**ETXEBIZITZA**

**Pisua salgai:** bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zehtrala. Tfnoa: 764971.

**Antzuolan Pisua erosiko nuke.**  
Deitu: 766236 tfnora

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. Tfnoa: 763761. Arratsaldez.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera: 764252.

**Pisua salgai** Dr. Fleming kalean. Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

**Etxebizitza salgai** San Lorentzo 25ean. Deitu: 763135

**Pisua salgai,** garaje eta guzti. Tfnoa:763911.

**SALDU-EROSI**

**PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko** objetibodun argazki makina salgai. **METZ 20B3** flasha, funda eta poltsa ta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. Deitu: 765690 / 801538.

**CX 2.600 A ATARI** bideo-jokuak erdi-prezioan salgai. 10.000 pezeta, ia berria. Tfnoa: 761718

**Fondoko hiru eski** pare salgai, estadu onean eta merke. Bata 6-8 urteko batentzat, bestea 8-10ekoarentzat eta bestea nagusi batentzat. Tfnoa: 763269

**Trabesiako eskiak** salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. 762250

**Collie txakur-kumak** salgai. Tfnoa: 766483, 17.30etatik aurrera.

9 bandadun **AKAI EA-A1 ekualizadorea** eta **AKAI AP-X1 tokadisko** erdiautomatikoa salgai. Deitu: 765690 edo 801538 telefonoetara.

**PCrako joku original** eta **koplatuak** (100 inguru) salgai. Oso merke!! Deitu: 761785 (Asier).

**Ekonomika** eta **beheko surako egurra** zakuka salduko nuke. Deitu: 763016

**Neskentzako bizikleta** salduko nuke. **BH bolearo rosa** modeloa. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

**SPECTRUM+2** bat salgai. 128K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. Deitu: 762512.

4 metrotako **ADRIA Karabana** salgai. Oso egoera eta prezio onean. Deitu: 761312 telefonora.

3 ateko **AX GT-ko baka** bat salgai. Deitu: 762481, iluntzeko 8etatik aurrera.

**LANA**

Arratsaldez lana egingo nuke **etxeko lanak** egiten edo **umeak zaintzen**. Deitu: 765482.

Emakumezko euskalduna behar da **haurrak** zaintzeko. Deitu: 760257.

**Neska euskaldun** bat behar dut **etxeko lanak** egiteko eta haur bat zaintzeko. 761253

**Hildakoak**

*Miguel Mugire Etxeberria*

urtarrilaren 5ean, 79 urte

*Juan Luarizaristi Albisua*

urtarrilaren 18an, 73 urte

*Florencio Alustiza Mekolalde*

urtarrilaren 18an, 86 urte

*Maria Francisca Tena Algaba*

urtarrilaren 19an, 37 urte

**Jaiotakoak**

*Miriam Pascual Delgado*

urtarrilaren 17an

*Asier Ribera Fernandez*

urtarrilaren 18an

*Virginia Crespo Crespo*

urtarrilaren 20an

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**Euskalduna**  
**Taberna**

**OSINTXU**




# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO  
GARANTIA**



**TEMPRA  
STADIO**

1.535.000 pzta  
Matrikulatuta

ERAKUSKETA:  
Ibargarai 39  
BERGARA

TAILERRAK:  
Antigua Auzoa  
ANTZUOLA

**Autoberezi FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA